
4. zenbakia
1999ko azaroa

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

uk



Bittor Alkiza

"Nahiago dut giro kaskarra egotea norberaren kontra, armailak hutsik ikustea baino"

roberto moso • aratz gallastegi • akabuko punte

euskararen egunak 99

XII-3 Azaroa

ipuin-kontalaria 26
Peio Añorga
urgull - 19:00etan - sarrera dohainik - algorta



bertso saioa 27
getxo antzokia - 20:00etan - 300 pta - algorta



kalejira 28
12:30etan - erromo/areeta eta algorta





x. amuriza
"xalbador, bat-bateko mirakulua"
zabala eskola - 19:00etan - gonbidapenez algorta

erakusketa
"nola aukeratu jostailu egokia?"
(28, 29 eta 30) erromoko erakusketa aretoa



hitzaldia 29
jostailua umearen garapenean
santa eugenia aretoa - 20:00etan
sarrera dohainik - erromo

arte hitzaldia 30
andy warhol guggenheim bilbao museoan
santa eugenia aretoa - 20:00etan
sarrera dohainik - erromo

haur zinea 1, 2 Abendua
pinotxo
eskola ordutegian - getxo antzokia - algorta





oskorri 3
fadurako frontoia - 21:00etan
1000 pta / 800 pta gazte txartelez

GETXOKO UDALA

GETXOKO KULTUR ETXEA
AULA DE CULTURA DE GETXO

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

irudia



ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

Ateak itxiko ditu Julia Learrak

1918an zabaldu zituen ateak Algortako denda historiko honek. Gaur egun eta aspalditik, Begoña Martinez dabil dendari lanetan. 70 urte eman ditu antzinako xarma gordetzen duen dendan barrena, dendan bertan jaio da eta. Denetarik saldu izan dute urte luze hauetan: oihalak, bariak, perfumeak, tabakoak, arrantza eta ebizarako tresnak, alpargatak, kaikuak, ikurrinak, umeentzako jolasak, mozorroak... Bukatzera doan mende honen lekuko izan da denda hau. Abenduaren 31n behin betiko itxiko dituzte ateak. Aprobetxa ezazu!

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ARGITARATZAILEA: Uribe Kostako Aldizkaria **HELBIBIDEA:** Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37 **ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru **ERREDAKZIOA:** Esti Ezkerra, Andoni Llosa, Konrado Mugerza **ARGAZKIAK:** Mikel Martinez **TESTUEN ORRAZKETA:** Joseba Butron **INFOGRAFIA:** Guillermo Almagia **MARRAZKILARIA:** Gorka Vázquez **ERREALIZAZIOA:** Jokin Aspuru **KOLABORATZAILEAK:** Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Sabin Ugarte, Iker Lores, Xabier Buenetxea, Itsaso Arana, Aitor Elizegi, Algortako Bertsolari Eskola **ADMINISTRAZIOA:** Konrado Mugerza **PUBLIZITATEA:** Iranzu Sotés, Amaia Bilbao 463 92 63, 491 13 37 **ALE KOPURUA:** 5.000 **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF **BULEGO ORDUTEGIA:** 9:00 / 13:00



Barrukoa Taberna



Telletxe 5

ALGORTA

SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat
AREETA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKETAK

T: 430 53 46

HIRURAK

Sarrikobaso 15 48990 ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA


Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

e-mail elkarrizketa

Hamburg-etik, Zaloa Pérez Genbe



- Zaloa Pérez Genbe
- 27 urte, berangotarra
- Psikologia ikasketak eginak ditu EHUn, Donostia
- Duela hiru urte Hanburg-en bizi da

"Eskaintza kulturala itzela da hemen"

Noiztik bizi zara Hamburg-en, eta zergatik hiri honetan?
Laster hiru urte beteko ditut hemen. Alemaniara etorri nintzen musika-terapia ikastera eta hasieratik Hamburg aukeratu nuen hiri honek eta Bilbok antz handia dutelako: portua, hiri industrialak dira biak... Baina, noski, Hamburg hamar aldiz handiagoa da! Gainera hemengo unibertsitateak psikologian maila handia du, oso ondo antolatuta dago eta denetarik ikas daiteke gai honetan.

Zertan zabiltza hor, zer egiten duzu?
Fakultatean sartzeko hizkuntza ondo menperatu behar da eta hasieran ez nuen ideiarik ere. Beraz, akademiara joaten nintzen goizetan eta lanean hasi nintzen arratsaldeetan; hemengo bizimodua garestitxoa da. Astean zehar bi egunez taberna batean egiten dut lan (10 ordu egun bakoitzeko), akademiara joaten jarraitzen dut eta gaztelaniazko klase partikularrak ematen ditut. Dirutxoa lortzen dut horrela, pisua, jana eta beste hainbat gauza ordaintzeko.

Azalduiguzu zelako giroa dagoen hor, zelakoa den jendea.
Hamburg hiri handia da, leku guztietatik etorritako jendea bizi da hemen, batez ere turkiarrak, poloniarrak eta afrikarrak. Beraz, elkarbizitza-arazoak egoten dira. Alemaniarrak oso itxiak dira baina aldi berean zintzoak. Gauzak pentsatzen duten moduan esaten dituzte eta batzuetan gogorregia izan daiteke, lar kritikoak izaten direlako.

Zelan hartu zintuzten, Zaloa?
Nirekin harrera ona izan zuten, Espainia modan dagoelako Alemanian. Hemengo jendea Mallorkara, Andaluziara... joaten da oporretan eta nirekin beti saiatzen dira gaztelianaz hitz egiten. Zoritxarrez, ez dituzte Espainia eta Euskal Herria bereizten, nahiz eta jakin zein den gure egoera politikoa. Informatuta badaude, behintzat (sarritan ni baino hobeto): baina euren historia dela eta, ez dute herri sentimendurik, ez dira batere abertzaleak eta kritikatzen dute besteongan nabaritzen dutenean.

Horko gauzetatik zer da gehien gustatzen zaizuna eta zer gitxien?
Eskaintza kulturala itzela da. Hemen adierazten duzuna zara eta berdin dio nondik zatozen, nor zinen... Oso indibidualistak dira eta nahi duzuna esan eta pentsatu dezakezu. Herri txiki batetik bazatoz (nire kasua) hau zure kontra bihur daiteke, oso zaila egiten delako famili giro beroa lortzea.

Zeren falta sentitzen duzu?
Uauuu! Hainbeste dira: familia, lagunak, itsasoa, mendia, gure tabernak...

Pasadizoren bat?
Harrigarria da, nire azentoa oso gogorra da alemanez berba egiten dudanean. Denek galdetzen didate ea Polonia aldekoa edota errusiarra naizen, erreak eta zetak bereziki markatzen ditudalako. Hemengo beste euskaldun batzuei gauza bera gertatzen zaie. Behin Madrileko ezagun batek zera esan zidan: *"No entiendo por qué a mí siempre me preguntan si soy latina y a ti si eres rusa, si la dos somos españolas"*. Ja, ja, ja.

Testua: Jokin Aspuru

ikimilikiliklik

José Ignacio Lobo



Juan Deusto, *Faneka*

Bere egiazko izena aipatzen badugu inork gutxik jakingo luke nortaz ari garen, *Faneka* esaten badugu berriz, jende guztiak ezagutzen du Algortan. Bizitza osoa lanean eman ondoren ondo merezitako jubilazioa bizi du orain. Betidanik Portu Zaharrekoa. Hantxe guztiak bat datoz: gizon jator eta ona da *Faneka.*

Non da itxaropena, non da itzala

"Mitologia grekoan, munduko lehen emakumea, jainko guztien dohainez betea. Zeusek, ordea, kaxa bat ipini zuen haren eskuetan, giza gaitz eta zoritxar guztiak barruan sartuta zituena. Epimeteorekin ezkondu zen eta ireki egin zuen honek kaxa: munduan zehar gaitz guztiak zabaldu ziren orduan; kaxaren ondoan itxaropena baino ez zen geratu"

Kontzientziaren kontzientzian, badirudi, ipuinean azaltzen den itxaropen hori argiaren munduan eskuratuko dugula, alegia, argian pausatzen direla gure galderen erantzunak. Gaineratu behar dut, baita, gehienetan, halaxe gauzatzen direla errealitateak. Zelan gauzatzen dira, ordea, besteetan?

Pandoraren Ipuin Mitologikoaren sinboloari jarraiki, non bizi da itxaropena? Non dauka habia? Ez al da paradogikoa pentsatzea, hau sakontasunean erdietsi dezakegula *(kaxaren hondoan itxaropena baino ez zen geratu)*?

Aspaldian irakurritako esaldi bat ekarri dut gogora, eta nire atrebentziak izkribu honetara irauli du: argia, itzalaren sustraietan dagoela hain zuzen ere. Baina, nik neure buruari beste galdera bat egiteko beta ematen diot: non ote dago itzala?

USOA IRIGOIEN

NAHIZ ETA...

Okupazioaren inguruan izan diren azken gertakarien inguruan, Gazte Asanbladakook zera adierazi nahi dugu:

—Nahiz eta Erromoko Gaztetxea eraitsi zuten, Getxoko Udalaren baimenaz, herriaren kultura autogestionatua hiltzeko asmoz (99ko abuztua);

—Nahiz eta egun batzuk geroago Portuko Amets Giza Lokala desalojatu zuten, atxilotu bat eta polizi-eraso ugari gertatuz (99ko iraila);

—Nahiz eta Iruñeko fiskalak hiru gazteri bizitzeko etxe bat okupatzearen delitu izugarriagatik isun handia ezarri zien (99ko urria);

—Nahiz eta Leioako Gaztetxeko kideek desalojo mehatxuak eta epaiketa prozesua jasaten duten (98/99);

—Nahiz eta des-informabideek okupazioaren aldeko mugimendu osoa krimilizatzen saiatzen diren, gogorzalea eta Bartzelonan gertatuko azken gertaeren errudun bihurtuz (Ynestrillas hara joan zen, 99ko urria)...

Nahiz eta hau guztia gertatzen den, eta nahiz eta zuek okupazioa kriminalizatzeko eta auzoetako autogestioa hiltzen saiatzeko trikimailu ugari asmatu, hemendik esaten dizuegu zuoi guztioi: Zarraoa jauna, Iruñeko fiskal jauna, Mayor Oreja jauna, des-informabideak, poliziak...

Han eta hemen okupatzen jarraituko dugula, orain eta beharrezkoa ikusten dugun bakoitzean, hau jolasa ez dela ulertzen duzuen arte eta gazteriak bizitzeko leku duinak, gure artean erlazionatzeko gune autogestionatuak eta kultur alternatibak behar ditugula ulertzen duzuen arte. Okupazioa aurrera!

EKAITZ SESUMAGA
(GAZTE ASAMBLADA, ERROMO)

Berangotarrak *Laratzean*



Azaroaren hasikeran berangotarrez bete zen Miramonen *Sorginen Laratza* grabatzen den estudioa. Klaudio Landak ederto pasatu zuen Berango eta "mango" berbekin hitz jokoak egiten.



San Jorge eta herensugea



Eskatu desio bat 2000. urteari















EGILEAK: ITZIAR PORTILLA, JANIRE ITURRIAGA & KATRIN MUGERZA

basurto
algorta S.L.
altzariak
T: 4607162 - 4604244
telletxe 15, algorta

GAVRKO
GIZONENTZAKO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

VILLABOTAS
JATETXEA
Menu merke eta bariatuak
Espezialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO
Kantxa Kizol moda
TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

CALZADOS RIKI
UMEAK GAZTEAK
Kale Nagusia 30 - T: 4645543
AREETA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Abenduak 3

Nazioarteko Euskararen Eguna

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Hainbat ekitaldi antolatuko dira egun hori dela eta. Guk hizkuntzaren inguruan hurbileko erakundeen asmoak jakin nahi izan ditugu

Getxon

Koldo Iturbe

Getxoko Udalak, bere helburuen artean, euskararen erabilera areagotzeko asmoa du. Euskara zerbitzua abian da, baina gure gogoa, alkatearen menpe egongo liratekeen teknikariz osatutako zerbitzu iraunkorra osatzea izango litzateke. Teknikari hauen lana, alde batetik, udalaren kanpo ekintzetara zuzenduta legoke Getxon euskara sustatzeko (merkataritzan, kultur eta kirol elkarteetan, itzultzaile lanak eskainiz...); eta, bestalde, herriari zor zaion erantzuna behar bezala euskaraz emateko, udal langileei dagozkien derrigortasun hizkuntz-eskaizinak lortzeko bideak bultzatuz. Biztanleei administrazioarekin harremanak euskaraz izateko aukera eman behar zaie eta administrazioak hauxe bermatu behar du, udalerriko harreman hizkuntza euskara ere izanik eta inguruko ekintzak gure hizkuntzaz garatuz.

Horretarako, eta biztanleen parte hartzea oso garrantzitsua delako, Getxoko Euskara Kontseilua sortzea da gure helburua, herriko euskara-munduko hainbat pertsonaiak parte hartu dezan. Honez gain, euskara adierazgarritzat duten elkarteek eta publikazioek gure bultzakada izango dute eta haiei lankidetza eskatuko diegu.

Besterik gabe eta guztion artean Getxo euskaldunago bat lortuko dugulakoan,

agur beroa.

** Koldo Iturbek Getxoko Udalaren izenean idazten du*

Mankomunitatean

Miren Dobaran



Uribe Kostako Mankomunitatean duela bi urte sortu zen Euskara Zerbitzua. Mankomunitatea Sopelatik Lemoizera arteko udalerriek osatzen dute eta euskararen erabilera areagotzeko ahaleginetan gogotsu ari gara lanean.

Herri administrazioei dagokienez, euskara zerbitzu hizkuntza oso-osoan izatea lortu behar dugu; gisa berean, datozen urteotan, euskararen erabilera planak abian jarri eta euskara lan hizkuntza izan dadin urratsak eman beharko dira. Bestalde, herri administrazioak alde batera utziz, gure helbururik behinena da, euskararen erabilera zabaltzea aisialdian. Ez da ahaztu behar, gure udalerrietan bizi den ume asko eta askok eredu euskaldunetan ikasi arren, eskolatik kanpoko jardueretan ez dutela euskara erabiltzen. Hori dela eta, aisialdia euskalduntzeko apostua egin du Euskara Zerbitzuak eta, horretarako, hainbat lehentasun ezarri dira. Gure iritziz, oinarri-oinarrizkoa da aisialdi-elkarte edo talde euskaldunak izatea, hau da, aisialdian euskaraz lan egingo duten begiraleak prestatzea. Ildo horretatik, aisialdiko begirale titulua lortzeko ikastaroa Sopelan bertan antolatu genuen iaz. Ikastaro hori bi ikasturtetan egiten ari dira Mankomunitateko hamazazpi gazte inguruk eta aurtengo uda partean Euskara Zerbitzuak antolatutako kolonia irekietan begirale legez jardun dute. Udako kolonia irekietan 50 ume inguruk hartu zuten parte; horretara, era guztietako jarduerak euskaraz egin zituzten. Modu berean, begirale ikastaroa egin duten gazteek aisialdi-elkarte bat eratu dute eta, azpiegitura horrek garrantzi itzela izango du urtean zehar antolatuko diren jarduerei begira. Horren harira, datorren urtean kultur eta kirol elkarteetan euskararen erabilera areagotzeko hitzarmengintza proiektua burutzeko asmoa dugu. Proiektu horren bidez, elkarte horietan euskararen erabilera sustatuko da, era guztietako laguntzak eskainita. Hein berean, euskara maila desberdinetan erabiltzeko konpromisoa hartuko dute kirol eta kultur elkarteek, beti ere Euskara Zerbitzuaren laguntzaz. Proiektu hori oinarrizkotzat jotzen dugu; izan ere, kirol elkarte askotan, esaterako, gaztelera hutsean dabiltza entrenatzaileak eta umeak, umerik gehientsuenak euskaldunak izan arren.

Hori guztia alde batera utzita, gainerako herritarrei zuzenduriko hainbat ekintza eta jarduera antolatuko ditugu, kasurako, euskal kanten ikastaroa, antzerkia... Beraz, bide luzea bezain gogorra egin beharko du Euskara Zerbitzuak datozen urteotan baina gogotsu eta ilusio handiz egingo dugu.

** Miren Dobaran Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara teknikaria*

aldai
TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK
Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

BilboMicro
"1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen"
Elkarte Anonimoa
Colón de Larreategui, 25
Tf. 4230212
ZERBITZU TEKNIKOA
Tf. 4230213
48001 BILBAO
BILBOMICRO

Leioan

Joxi Arakama



Leioako Euskara Zerbitzua bost urteko ibilbidea atzean utzi eta milurte berriari begira jarrita dago dagoeneko. Hauexek dira milurte berriari begira ikusmiran ipinita ditugun helburuak eta asmoak:

- **Euskara biziberritzeko plangintzaren onarpena:** plangintza honek, Leioan 2000tik 2003ra bitartean, euskara sustatzeko egin beharrekoa jasoko luke: lehentasunak, helburuak, egitasmo zehatzak eta bitartekoak, besteak beste.
- Euskararen belaunez belauneko transmisioa bultzatu, nola familia bidezkoa (ESAIDAZU EUSKARAZ ekimenaren bitartez) hala eskola bidezkoa.
- Ikasteredu euskaldunen sustatze-lana, bai kantitateari eta baita kalitateari begira ere; azken urteotan BIDE ONETIK izenarekin landu den arloa.
- Haurrentzat eta gazteentzat antolatzen diren eskolorduz kanpoko jardueretan (udalak antolatutakoak eta herriko elkarteek antolatutakoak) euskararen erabilera sustatu:
  —Aisialdia munduan eragiteko EUSKARA ESKURA izeneko egitasmoa ipini zen abian orain bi urte. Herriko talde eta elkarteekin hitzarmenak izenpetu ziren euskararen erabilera barrutik bultzatzeko asmoarekin. Hitzarmengintzan oinarritutako ekimen honek arrakasta handia izan du eta horren erakusgarri dira egitasmoaren baitan sortu diren ekimenak
  —Ekimen horietako bat, hain zuzen, KIROLA EUSKARAZ egitasmoa da. Bistan da, kirolak gaur egun haur eta gazteentzat garrantzi handia duela; beraz, kirola euskaraz burutzeak erabileran eta motibazioan itzelezko onurak ekar ditzake.
- Udalak herritarrekin dituen harremanetan euskarazko zerbitzua bermatzeaz gain, euskara lan hizkuntza izan dadin urratsak ematen hastea. Horretarako ezinbesteko tresnatzat jotzen dugu Hizkuntza Normalizaziorako II. Plangintza onartzea.
- Azken bi urteotan, hitzarmengintzaren metodologian oinarrituta, emaitza onak eman dituen EUSKARA MERKATARITZARA egitasmoa indartu, merkataritza sektorean euskararen erabilera areagotzeko.
- Uribe Kostan argitaratzen hasi den UK aldizkariaren Leioako edizioa indartu, Leioako gaiek gero eta pisu handiagoa izan dezaten.

Hala ere, azken (eta lehen) hitza leioztarrek dutela kontuan izanik, amaitzeko eskaeratxo bat egin gura deutsuegu:

MENDE BARRIAN BE EUSKARAZ

** Joxi Arakama Leioako Euskara Zerbitzuko arduraduna da*

Ekitaldiak UKn

AZAROAK 18
Hitzaldia: Koldo Izagirre
"Literatura ez-kartzeletu baten alde"
Algortako Kultur Etxea, 19:30

AZAROAK 22
Hitzaldia: *"Anorexia, buru osasuna"*
Erromoko Santa Eugenia aretoa, 19:30

AZAROAK 26
Ipuin kontalaria: Peio Añorga
Algortako Kultur Etxea, 19:30

AZAROAK 27
Bertso saioa:
Getxo Antzokia, 22:00, 300 pta.

AZAROAK 28
Kalejira
Erromo, Areeta eta Algortan, 12:30

Hitzaldia: Xabier Amuriza
"Xalbador, bat-bateko mirakulua"
Zabala Eskola, 19:30, gonbidapenaz
Erakusketa: *"Nola aukeratu jostailu egokia?"*
Erromoko erakusketa aretoa

AZAROAK 29
Hitzaldia: *"Jostailua umearen garapenean"*
Erromoko Santa Eugenia aretoa, 22:00

AZAROAK 30
Hitzaldia: *"Andy Warhol Guggenheim-en"*
Erromoko Santa Eugenia aretoa, 22:00

ABENDUAK 3
Kontzertua: Oskorri
Fadurako frontoian, 21:00, 1.000 pta.

BODEGUILLA
BUTRON
gurean euskaraz!
Bidebitarte 5 ALGORTA

GAZTAÑAGA
INTERSPORT
TRAVEL CLUB
Lortu zure puntuak HEMEN!!
Kiroletarako behar duzun guztia!
Amesti 8 T: 4910605 ALGORTA
Sarrikobaso 42 T: 4300397 ALGORTA
Sabino Arana 93 T: 4646617 LEIOA

ez ahaztu!
bete zure
harpidetza

Bittor Alkiza

29 urte bete berriak ditu, donostiarra. Herri Amets ikastolako futbol taldean hasi zen jokatzen, ondoren bere auzoko taldean, Sporting de Herreran, handik Errealera egin zuen jauzia. Errealeko talde txikietan jokatu ondoren, ekipo nagusian ibili zen. Gaur egun kolore zuri-gorriak defenditzen ditu Athleticen.

TESTUA: JOKIN ASPURU / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

“Okerrena jendeak ni ezagutzea da, eta kaletik lagunekin noanean jende askok ni gelditzea… Hori benetan, oso gaizki eramaten dut”

—Zein futbol jokalari miresten du Bittor Alkizak?

—Txikitan Maradona eta López Ufarte nituen jokalari izugarritzat; gaur egun, beharbada, Figo eta Zola izango lirateke.

—Izan dituzun bi lesioen ondoren, noiz ikusiko dugu berriro ere orain dela bi denboraldiko Alkiza?

—Ez dakit, lehenbailehen izatea nahi nuke nik. Oraindik problema batzuekin nabil eta ea konpontzen ditudan...

—Ba al dago aurten Athleticen aurkako jazarpen arbitralik?

—Ezetz pentsatu nahi nuke, baina orain arte gauza asko kendu dizkigute eta eman ezer ez. Eta, orduan, partidu asko dira eta dagoeneko zeozer pentsatzen hasiak gara.

—Zeintzuk dira taldearen helburuak aurten?

—Niri ez zait helburuak jartzea gustatzen. Nire helburua igandero irabaztea izaten da. Gero, azkenean, sailkapenak egon behar duzun tokian jartzen zaitu. Liga amaitzeko hamar partidu edo falta direnenean, orduan finkatu behar duzu zer eta non egon nahi duzun. Baina orain-goz poliki-poliki joatea da helburua.

—Gustatuko litzaizuke Athleticen amaitzea zure kirol karrera?

—29 urte besterik ez ditut eta jubilatu nahi nauzu? Ba, bai, hemen oso gustura nago baina futbolean sekula ez dakizu ez hemendik urtebetera, baizik eta datorren astean non eta nola egongo zaren. Oso gustura nago, baina beharbada datorren urtean ez naute hemen nahiko.

—Zer egiten du Bittorrek San Mamesen partidu bat jokatu eta gero?

—Gauza berezirik ez. Normalean lagunekin afaltzera joaten naiz, familiakoak badatoz, anaiekin edo gurasoekin. Ikusten duzunez, ezer gutxi. Batez ere, lasaitzen saiatzen naiz partidu aurretik, presio handia, nerbioak-eta izaten direlako.

—Zer iritzi duzu misterraz?

—Nik ez daukat kexarik. Bera etorri arte ni ez nengoen oso ongi hemen, ez nuen jokatzen eta berarekin ia beti jokatu izan dut. Beraz, ezin naiz kexatu; alderantziz.

—Pertsona bezala esan nahi nuen?


—Tipo berezia da. Ez da normala futbol munduan horrelako jendea ikustea entrenatzen. Baina berak jokatzen zuenean bezala entrenatzen du gaur egun. Lehen esan dudana, tipo berezia da.

—Athleticzale amorratu batek esan zidan, bizi izaten duen esperientziarik zirraragarriena, hunkigarriena, San Mamesen 30.000 lagunek “goool” oihukatzen dutenean izaten duela. Hori itzelezkoa dela...

—Zale bezala ikusten duelako izango da hori. Zelaian zaudenean gola izugarrizko pozez hartzen duzu, baina badakizu partidua oraindik ez dela amaitu. Nik nabaritzen dut antzeko zeozer arbitroak bukaera pitatzen duenean. Orduan bai, arnasa botatzen duzu eta amaitu da, eta irabazi dugu... Lasaitua hartzen da. Baina amaiera pitatu arte oso gaizki pasatzen da San Mamesen.

—Konturatzen al zara zernolako eragina duzuen jendearengan?

—Esaten dizut, zelaian gaudenean ez gara konturatzen. Konturatzen da bat partidua amaitu



denean edo, adibidez, orain dela bi urte bigarren postua eskuratu genuenean. Zelaian jokatu egin behar duzu eta kito.

"Nahiago dut giro kaskarra egotea norberaren kontra, armailak hutsik ikustea baino"

—Entzuna diot andre bati, Athleticek galtzen duen asteburuetan ez dagoela senarrarekin jokorik ohean?

—(Barreak) Ba, ze putada! Horrelako jendea badago. Nik, adibidez, gogoan dut aita etxera etortzen zenean eta Errealak galtzen zuenean, ba ez zegoen irabazten zuenean bezala. Jendeak bihotzean eramaten du Athletic eta, beno, horrelako gauzak gertatzen dira. Baina sexu harremanik ez izatea... pasada bat da.

—Gaur egun hiruzpalau kirol egunkari daude, tertuliak irratietan, telebistan hainbat partidu eta saio futbolari buruz...

—Eragin handia dauka futbolak; gainera, momentu honetan gauza asko mugitzen dira beronen inguruan eta ez bakarrik kirol bezala: dirua, aldizkariak... Futbolaz ia jende guztiak daki eta gehiago jakin nahi izaten du. Atera diren aldizkari horiek, gainera, batzuentzat behintzat, munduko notiziak ekartzen dituen edozein aldizkari baino inportanteagoak dira. Futbolak eragin itzela dauka jendearengan, nik esango nuke gehiegizkoa dela.

—Zein da futbolari baten etsairik handiena?


—Norbera izan daiteke. Askotan jokatzeko puntu-puntuan egon gabe, entrenatzen ematen du batek aste osoa eta, beharbada, molestiak izaten ditu, astean zehar problemaren bat izan du... Beharbada, ez da asko nabaritzen, baina 90 minutu horietan eragin handia du horrek guztiak.

—Zelan jasaten da zelaian ikusleak norberari gaizki esaka ikustea, entzutea?

—Partiduan sartzen gara. Igual jokaldi batean geldi zaudenean astakeriaren bat entzuten duzu. Zelaira ateratzean, giroa ikusten da, eta nahiz eta kanpoan jokatu, eta jakin giroa norberaren kontrakoa dela, ba horrek ematen du, ez dakit nola esan, halako zeozer aurrera ateratzeko gauzak. Hori sentitzea polita da. Nahiago dut giro kaskarra egotea norberaren kontra armailak hutsik ikustea baino. Niri gertatzen zait, ez dakit barru-barrutik ateratzen da zeozer eta esaten duzu: kaguendiez, orain enteratuko dira hauek.

—Maniaren bat zelaira atera aurretik?

—Jo, pila bat. Besteentzat ez dira, niretzat bai. Normalean



aldageletan partidu aurretik, beti-beti egin ditut gauza berberak: eseri leku berean, lehenengo jarri bota bat gero bestea beti beti ordena berean...

—Zer da futbolean maiteen duzuna?

—Maite dut, ba, futbolean badirela partidu batzuk bereziak, benetan ondo pasatzen direnak; baina oso gutxi izaten dira. Norberak hori nabaritzen duenean, sekulakoa da.

—Eta zer da txarrena?

—Okerrena da jendeak ni ezagutzea, eta kaletik noanean jende askok gelditzea... Hori benetan, oso gaizki eramaten dut.

—Badaukat kuriositate bat eta horrekin amaitzen dugu, zenbat futbol-baloi dituzu etxean?

—Bat ere ez. ■

LABUR-LABUR

Kanta bat...
Hertzainak taldearen Aitormena.

Liburu bat...
Atxagaren Obabakoak.

Jateko...
Ba, pasta eta arroza, ez dugu besterik jaten eta. Baina jateko dietatik kanpo, txuleta eder bat.

Leku bat bizitzeko....
Donostia edo, bestela, Sopela.

Leku bat bisitatzeko...
Patagonia ikusi nahi nuke.

Egun perfektu bat...
Janari edo afari bat maite dudan jendearekin, familiarekin edo lagunekin.

Akatsen bat...
Gehiegi, pila bat.

HUTSUNEAK BETE

*Ezin izango nuke bizi.....**lagunik**.....gabe.*
*Ez dut jasaten.....**etxean lasai egotea eta telefonoak jotzea***
*Mundua hobeto joango litzateke.....**hain egoistak izango ez bagina***
*Zoriontsua izateko.....**lagunak**.....behar dira.*
*Beldurra ematen dit.....**kazetariekin hitz egitea***

sartu dirua zuzenean gure kontuan!!!
BBK 2095 0022 01 3830766915
diru sarreran ipini zure izena eta bidali iezaguzu egiaztagiria

UK Uribe Kostako Aldizkaria - 171 posta kutxa. - 48990 GETXO
Tel - Fax: 94 491 13 37 / aldizkaria@euskalnet.net

aldizkari honek babesleak, diruemaleak, behar ditu hilabetero argia ikusteko, nahi izanez gero, zu, euretariko bat izan zaitezke.

Merezi al du esfortzu honek?

Irakurri nahi duzu... UK?

Lagunduko gaituzu?

Edozein arrazoiagatik, aldizkaria jasotzen baduzu eta interes berezirik ez baduzu... ...deitu, mesedez; utzi zure izena! Danok irabazten dugu, zuk eta guk.

uk URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

Harpidetza

Harpidetza egin nahi nuke (12 euro = 2.000 pta./urte)

Izen-deiturak:.....
Helbidea:.....
Herria:..... *Posta Kodea* .....
Telefonoa:.....
e-mail:.....
Kontu zenbakia (20 zenbaki) .....

Sinadura




irudiak

egileak aukeratuak

Goian, "Eta zu zeri begira zaude?", Kenia

ARGAZKIAK: AITOR GALBARRIARTU AYO






Goian, "Tio Juan"en erretratua, Aitorren senitartekoa
Goian ezkerrean, tximista edo justuria Larrabasterran iaz
Azpian, Arriluze "leheri"




Ezkerrean, Vietnam-go monje gazteak, 1995
Ezkerrean, azpian, prozesioa Bilboko San Frantziskon, 1999
Azpian, Indiako Rajastan-go biztanle bat, 1993










Goian, ume bat bainua hartzen Yakartan (Indonesia), 1991
Ezkerrean, Saharan hartutako irudia, 1994



AITOR GALBARRIARTU AYO

Aitor Galbarriartu Sopelako semea da, 34 urte ditu eta ogibidez kamara lanak egiten ditu ETBn. Argazkakilaritza eta bidaiatzea dira beraren pasioak; Ozeanian izan ezik beste kontinente guztietan zehar ibili izan da bere argazki kamararekin. Lerro hauek idazteko unean Egiptorako bidean dago. Fotografiazko hainbat sari ere eskuratuak ditu.

Oharra: jatorrizko argazkiak koloretakoak dira guztiak, prozesioarena, Keniakoa eta "Tio Juan"en erretratua izan ezik; hauek zuri-beltzean hartuak izan ziren.



IPUINA

BALIZKO LAGUNA

IÑAKI BERNAOLA

Balizko laguna nuen nik Errezilgoa, haurtzaroko oroitzapenetatik sortua eta helduaroko bizipen saminek nahasia. Herriak berak ere balizko sakongunearen tankera hartzen zuen duela urte mordo bat ikusi nuen argazki batean, airetik aterata nonbait, "Marca" egunkariak Paulino Uzkudun boxealariari eskainitako erreportaia luze baten apaingarri gisa argitaratua. Astean behin edo argitaratzen zituen nire haurtzaroko Marca-k, eranskin tolesgarriaren formatoan, behinolako boxealarien biografiak: Max Baer, Primo Carnera, Paulino bera eta, guztien ginean, Joe Louis, "Detroiteko bonbarderoa" omen. Kirolzale amorratua zen nire osaba Damasok oparitzen zizkidan berak irakurri eta gero; eta niri, bera bezain kirolzale izan ez arren, balizko unibertso bat osatzeko balio zidaten, besterik gabe.

Zulo sakonaren tankera zuen Errezilek argazkian; eta horregatik, agian, lurraren errraietatik sortuak bailiren irudikatzen nituen nik hango biztanleak; iragan misteriotsu eta, seguraski, beldurgarriaren jabe baina, aldi berean, bizitzaren gorabeherei aurre egiteko duin paregabeaz hornituak, lurraren magman izandako bataioak soilik eman dezakeen duina, alegia.

Apala eta ixila zen nire balizko laguna, begien putzu sakonean lurraren indarra eta iraganaren izua nabarmen oraindik eta, bestalde, kementsu eta erabakitsu, kinka larrietan hitz gutxikoa baina sekulan ere atzerapausurik eman gabea. Izan ere, tolesdurarik gabeko burdin-zatia zuen arima, lur-magmatik gorigori erauzia eta urteen poderioz hoztua eta moldatua.

Nolanahi ere, solas lasaia zuen gustuko, bidexka bakartietan emaniko ibilaldi luzeetan pausua eta hitza uztarturik eramanda. Hala, haurtzaroaren oroitzapenei eman zien behin eta, besterik gabe, bere lehen urteetako eskola-garaia ekarri zuen gogora: Berak gaztelania jakin ez eta maisua, berriz, erdaldun hutsa. Gainera, euskara eta erdararen arteko kontraesana era bortitzenean, hots, zigorra eta jipoiaren bidez, ebazten zen egunero, "Elebitasun orekatua", "Bi kultura desberdinen arteko elkarbitzitza", "Aniztasunaren aurreko sen tolerantea" eta enparauak asmakizun modernoagoak izan dira eta.

Hizkuntza arrotzari gainjarria, beste unibertso-mota berri bat azaldu zitzaion oldarkor: "Inperioaren loriak", "Destino-batasun unibertsala", "Mundu eta historian zehar Espainiak erakutsitako nagusitasun berezkoa"... eta, horien guztien gainean, 20-N batean suertaturiko Jainko Semearen martirioa, hogeita hamahiru urte zituelarik infernuko deabru gorriek fusilatua; Estatu-burua zen Aita Jainkoak, berriz, hilezkor izateko traza osoa zuen bitartean. Horrelakoak eta gehiago atera zitzaizkion behin borborka, ohiko batere ez zuen hizjario kontrolagaitzean.

—Aizak –moztu nion azkenean–, zergatik ari haiz kontatzen hori guztia?

—Entzun al duk irratia gaur goizean? Goizeko zortzietan hasten diren tertulia horietako bat, alegia.

—Espainiako sasijakintsuak beti solaskide eta Euskadi beti mintzagai? Nik ez diat holakorik entzuten, motel! Zer, ba?

—Horko ergel batek baieztatu dik gaurko saioan, gogor baieztatu ere, euskara, euskara batua hain zuzen, ETA-k asmatua dela; eta horregatik ez dela benetako hizkuntza.

Ez zen nire laguna, ezta hurrik eman ere, elkarrizketaren hariari hurbiletik jarraitu beharrean adarretan ibiltzen diren horietakoa; eta are gutxiago zentzugabekeriak gustuko dituen pertsona. Hala, larritu egin nintzen hasieran, haren diskurtsoaren nondik-norakoak asmatu ezinik.

—Barkatu, baina ez diat ulertzen zer zerikusi duen...

—Aizak –seko moztu zidan– ba al dakik niri zenbat urte kostatu zitzaidan ulertzea...?

—Ulertzea zer?

—Ulertzea gaztelania ez zela Jose Antoniok eta Francok asmaturiko hizkuntza. Eta areago oraindik: bi horiek existitu izan ez balira ere, gaztelania hortxe egongo zela, agian beste modu batean, baina hortxe, munduan, azken finean?

Ustekabean harrapatua, ez zitzaidan bururatu tajuzko erantzunik. "Patetikoa zela –esango lukete intelektualek– kanpoko eragile batek bere nortasunaren sustraiak erazteak sorturiko traumaren ondorioz haur txiki batek izan ditzakeen eldarnioen pareko arrazonamendu kaxkarrak botatzea pertsona helduek, asmo maltzurrez gainera...". Baina ni ez naiz intelektual, hau da, nik ez dut pentsatzen arazo baten gaineko teoria bat asmatzea nahikoa denik arazoa konponzeko. Horregatik, nahiago nuen ixilik iraun. Hala, mutu eta ixilik jarraitu genuen bidea zati luze batean, eta askoz beranduagora arte ez nintzen kapaz izan gaiari berriro heltzeko.

Gure aitari txikitan entzundako abesti bat kantatu nion orduan, Espainiako Gerra garaiko euskal soldadu presoek asmatu omen zutena:

Aquí están, aquí están, los del grupo de Tarzán.
Egunero mozkortuta Calatayu(de)ko plazan.
Ai Maritxu, ai Maritxu!
Urte bi baino lehen etorriko jatzu.

Bera zen orduan harritua. Eta galdera berdintsua egin zidan, ea zer zela eta bat-baatean kantari.

—Ikus dezaan, motel, Franco eta Jose Antonio gabe ere euskaldunok gaztelania erabiltzen genuela, oso modu alaian erabili ere.


Ez dakit pozik geratu zen Errezilgo nire balizko laguna, umore kontuan bitxi samar izan naiz-eta beti. Dena den, noiz edo noiz elebitasun orekatu pixka bat osasuntsua delakoan nago; orekak desoreka sakonago bat estali besterik egingo ez balu ere. ✔



Iñaki Bernaola (Bilbo 1952) idazlea da. "Bonga", "Zugarramurdiko kontesa", "15 urteko naufragoa" eta "Lau idazlan ahizpak" liburuak idatzi ditu. Gaur egun Berangon bizi da eta irakasle lanak egiten ditu Getxoko Andra Mari Leben Hezkuntza Ikastetxean.

literatura

bai... baina ez



Laura Mintegi eskuetan nobelaren ale bat duela

TESTUA: J.A. / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

Maitasunaz

Bai... baina ez Laura Mintegiren nobela berrargitaratu da

Hamabost urte geroago berriro dago salgai 1980ko hamarkadan zer esana eman zuen nobela hau. Maitasunezko istorio bat da *Bai.. baina ez*, maitasun samurra eta aldi berean izugarria, guztiz goxoa batetik baina benetan lazgarria bestetik. Edertasuna eta itsusitasuna eskutik helduta doaz istorio honetan; baina, beharbada, maitasunezko harreman guztietan agertzen diren bi muturrak: gorentasunak eta miseriak.

Laura Mintegik inolako moralkeriarik gabe kontatzen du bere istorioa. Idazkera patxadatsua eta arina, egunerokotasunaren erritmoa duena, kalekoaren presentzia nabarmenarekin, gu geu ere obraren partaide eta lekuko bihurtuz.

Nobela hau R. M. Azkue eleberri-sariaren irabazle izan zen 1985ean. ■

KOLDO IZAGIRREN HITZALDIA ALGORTAN

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko "Irakurzaleen Txokoa"k Koldo Izagirre idazlea ekarriko du Getxora. Idazle donostiarrak "Literatura ez-kartzelatu baten alde" gaia hartuta hitzaldia emango du azaroaren 18an Algortako Urgull kaleko Kultur Etxean, arratsaldeko 7:30etan. Bestalde, literatura gustukoa baduzu, gogoratu Irakurzaleen Txoko honek ateak zabalik dituela parte hartu nahi duten guztientzat (430 19 32).

sopelako ikastola

sarean

Ander Deuna ikastola





Ikastolako web orialdea ikusteko: www.jalgi.com/ikastolak/ikasweb/sopela

Euskal Herriko Ikastoen Federazioa: www.ikastola.net



Internet-sarea gero eta handiagoa da, astiro, baina etenik gabe, gero eta gehiago dira barruan sartzen direnak; Sopelako Ander Deuna Ikastolak pausu hau emana du. Web orrialde dotore eta praktikoa aurki dezake portu horretara jotzen duen nabigatzaileak: ikastolako zerbitzu guztien berri, instalazioak, ikastolarekin harremanetan jartzeko aukera... Ikasleek egindako lan bikainak ere ikus daitezke Geocities-erako ezarri duten link-a sakatuz. Merezi du.

Bestalde, hezkuntzarekin segituz, Ikastolen Elkartearen web orrialdea ere aipatzeko modukoa da. Guztion eskura jarri duten datu-basean hainbat informazio baliagarri topa daiteke: besteak beste, Euskal Herriko ikastetxe guztietako helbideak, munduko Euskal Etxe guztienak, hiztegiak, entziklopediak, hainbat link interesgarri eta abar. Ikasleek ere, jakina, badute euren gauzetarako txokotxoa. ■

natura

azaroa

Azaroa

Urri lehor eta haizetsuaren ondoren, azaroa. Euria eginez gero onddoak eta hegaztiak izango dira protagonistak.

Testua: Xabier Buenetxea







Goian, Isuzkiza ondoko meandroa Butroe itsasadarrean. Azpian ezkerrean, laster onduko diren kiwiak. Ondoan, oilagor bat.

Urriko hego haizeak hainbat pagauso, alaudido, antzar eta harrapakari ikusteko aukera eskaini digu. Laster oilagorren, lertxunen, eta anatiden txanda izango da, eta tenperaturak bat-batean jaisten direnean, negu-txirtak, txontak, birigarroak, durdulak eta hegaberak azalduko zaizkigu. Uribe Kostako landa zabalak oso egokiak dira gure paseoetan txori hauek ikusteko, eta irudi atseginagorik nahi duenak, kostaldeko itsas-labarretara jo dezake. Ezin aipatu barik utzi, bioaniztasunari dagokionean Uribe Kostako gune naturalik aberatsena: Butroe itsasadarra. Inguruko udalek, honezkero, gune honen egoera ona bermatuko lukeen babes-egitasmoa lantzen egon beharko lukete.

Hezetasunak gora egiten duen heinean onddoak agertzen hasiko dira, onddo gehienak sexualki perritxikoen bitartez ugaltzen direlako. Zaleek gozatzeko aukera izango dute orain. Gozamen hau sukaldekoa izaten da baina badira beste batzuk. Komenigarria da oinarrizko aholku batzuk gogoratzea: jango duguna bildu eta ez gehiago, ez hartu ezagutzen ez ditugun perretxikorik ezta jan ere, ondo ezagutzen ez ditugunak, modu egokian hartu beranduago inguruan berriro ager daitezen. Soloari dagokionez, kiwiak onduko dira. Hauek ondo heldu aurretik izozterik egongo dela susmatzen badugu, egokiagoa da lehenago biltzea. Ontze prozesua, plastikozko poltsa batean sagar batekin batera sartuz azkartzen da. Hosto galkorreko zuhaitzak ia biluzik geratuko dira eta neguan fruituak ekartzen dituzten zuhaixkak, negu basoko erreserba izango denaren arrastoak erakusten hasiko dira. Huntzaren, erratzaren, endalaharraren apomahatsa eta beste hainbaten fruituak topa ditzakegu orain basoan. ■

4 bide pinturak



Loroño 2
Tlf.: 94 976 29 92

SOPELANA

Laubide 4
Tlf.: 94 676 52 40

AHOLKUA

Perretxikoak labanaz edota artaziz moztu behar dira. Ehakiak garbia izan behar du; perretxikoaren oinarriak lurrean geratu behar du.







Kepa eta Eneko Acero. Argazki txikian, hirugarrena, Iker

surf

Kirola

Acerotarrak puntan

Acerotarrak buru, Euskal Herria aspaldi dabil surfean handienen artean

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel M.

Surfaren inguruan esames ugari zabalduta dauden arren, Euskal Herrian gazte ugarik praktikatzen duten kirola ere bada; Iker Fuentes, Jon Garai, Eunate Agirre, Aritz Larrinaga edo Aketza Sanchezek, besteak beste, hemengoen kalitatea agerian utzi dute nazioarteko txapelketetan. Gaur egun, Euskadi Europako talderik onena da Frantziaren atzetik.

Hala ere, topikoek bere hartan darraite ezjakitunen artean. Horien aurrean, Eneko Acero-ren erantzun bakarra irribarre txiki bat da. Izan ere, Eneko Acero aspaldian dabil olatuen gainean, berak 11 eta Iker anaiak 13 urte zituztela, Arrigunagako skate ibilerak alde batera utzi eta lagun batzuen gomendioa jarraituz, taularen esperientzia dastatu zutenetik, hain zuzen ere. Laster euren bide beretik abiatu zen Kepa, hiruretatik gazteena, nahiz eta artean oso txikia zenez kortxoarekin hartu zituen lehen olatuak. Gabonetan amak Enekori taula bat oparitu zion eta harrezkero surfeatzen jarraitu du; aurten Europako txapeldun izatera heldu da. Anaiak ere ez dira batere gaizki ibili: Iker Europako hamargarren postuan kokatu da eta Kepak Europako Pro-Junior txapelketan hirugarren postua eskuratu du. Gurasoen laguntza ezinbestekoa izan zaie aurrera jarraitu ahal izateko.

Lehia dagoen arren, surflarien arteko harremana ona izaten da. Hemengoen artean arazorik ez dago. Gehienak koadrila berekoak dira eta egun osoa elkarrekin ematen dute hondartzan. Hala ere, Acerotarrei elkarren artean lehiatu beharra gogorra egiten zaie; errespetu handia diote elkarri.

Ordu asko ematen dituzte Acerotarrek hondartzan. Eneko profesionala denez, ikasketak alde batera utzi behar izan ditu, Iker eta Kepa oraindik liburuekin gora eta behera dabiltza. Kepa aurten unibertsitatean hasi da baina klasetik nahi beste agertzeko aukerarik ez du. Entrenatu beharra dute eta negua heltzen denean hemengo klima ez da oso lagungarria izaten. Urtaroa hasita anaiak maletak egin eta ur epelagoen bila abiatzen dira, gehienetan Hego Amerikara edo Australiara.

Denboraldia bukatuta aste pare bateko atsedenaldia hartu eta segituan entrenamenduei ekingo diete berriro. Datorren urtean Enekok mundialari arreta handiagoa jarriko dio, eta anaiek gertutik jarraituko diote. ■

Aratz Gallastegi

Duela 13 urte hasi zen errugbian eta ordutik hona Getxoko taldean izan da, modu arrakastatsuan gainera. Espainiako selekzioarekin aurten munduko txapelketan ibili ostean, honi uko egitea erabaki eta euskal selekzioaren aldeko borrokan sartu da buru-belarri.

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: J. A.

Hamar urte zituela aita eta anaien urratsei jarraituz errugbiaren munduan sartu zen Aratz. Soin Hezkuntzako ikasketek Gasteizen egotera behartzen dute eta horregatik bere aldetik entrenatu beharra dauka. Hala ere, astean behin Faduran entrenatzen saiatzen da taldekideekin batera. Munduko txapelketan izan ostean lanari ekiteko gogotsu itzuli da.

—Zaldunek jokatutako basatien kirola omen da errugbia.

—Bai, hala diote. Zelai barruan elkarri kolpeka aritzen gara baina gero partidua bukatzen denean beste taldekoekin bildu eta tabernara joaten gara garagardo bat hartu eta partidùa komentatzera. Zelai barruan etsaiak gara baina zelaitik kanpo lagunak, horixe da hirugarren denbora errugbian.

—Zer moduzkoa izan da Munduko Txapelketa?

—Esperientzia izugarria izan da, inoiz ez dudalako Munduko Txapelketa bat jokatu. Gauza handia da guretzat horrelako txapelketa bat jokatzea. Oso ondo pasatu dugu eta ea ikasi duguna aprobetxatzen dugun.

—Aldea nabarituko zenuten selekzio batetik bestera.

—Alde handiak nabaritu ditugu. Errugbian maila ezberdin asko daude eta gu horien guztien bi edo hiru maila beherago gaude. Kontuan hartu talde horietan guztietan jokalariak profesionalak direla, hemengo futbolarien antzera. Gu amateurrak gara eta hori alde handia da, beraiek prestatuagoak daude fisikoki zein taktikoki eta zelaian asko nabaritzen da hori.

—Euskal Herrian egoera nolakoa da?

—Iparraldean, betiko moduan, oso egoera onean daude eta Hego Euskal Herrian nahiko kili-kolo gabiltza. Espainiako txapelketan Ohorezko Mailan Getxo bakarrik dago eta maila bat beherago Donostiako Bera Bera. Hortik behera daude beste talde guztiak. Nik esango nuke Hegoaldean gauzak gaizki daudela. Oro har, Euskal Herrian gaztetatik errugbian jokatzen hasten den jendea falta da. Jokalari onenek gaztetatik errugbian jokatu dute.

—Denboraldia hasi berria, zein da taldearen helburua?

"Hemendik aurrera Espainiako selekzioarekin gehiago ez jokatzea erabaki dut"

—Gogorra izango da, talde berria daukagulako. Iaz gaizki pasatu genuen baina aurten gauza bera ez gertatzea espero dugu. Gogoz ekingo diogu partiduak irabazteko eta hortik abiatuta beldurrik gabe aurrerantz.

—Eta zeure burua nola ikusten duzu?

—Errugbian urte askotan jarraitzeko asmoz. Oraintxe bertan nire erronka nagusia Euskal Selekzioa lortu eta bertan jokatzea da, baita euskal lizentziak sortzea ere, Espainiako lizentziekin jokatzen baikabiltza. Hemendik aurrera Espainiako selekzioarekin gehiago ez jokatzea erabaki dut hemengo selekzioaren alde lan egiteko. Momentuz ez dut errugbia uzteko presarik eta horrela jarraitzea espero dut, baina euskal lizentziarekin baldin bada. Ea zer gertatzen den.

—Zein da momentuko egoera?

—Borroka hor dago, azken batean geuk erabaki behar dugu zer izan nahi dugun eta kontua zelan aurrera eraman. Pixka bat intsumisoen egoeran gaude. Gero mundu mailan joka dezakegun ala ez? Baimena eskatu beharko diegu munduko federakundeei, baina horregatik ezin gara beldurtuta ibili. Aurrera jo beharko dugu eta lizentziena lehen urratsa da. Bi urte jokatu gabe geldi gaitezkeela Euskal selekzioarekin jokatu ezin dugulako? Ba bi urte jokatu gabe, baina borroka honek aurrera egin behar du helburua lortu arte, ez dago beste bueltarik.

—Kirol batzuetan Euskal selekzioa badago.

—Kontua da kirol batzuk oso egituratuta daudela eta Espainiako federazioaren barruan daudela. Baina beste kirol batzuk berriak dira eta horren adibidea surfa da. Surfean Euskal Herriko Federazioa sortu zuten eta orain Espainiakoa egin dute aurretik ez zegoelako. Honek Euskal Federazioa irentsiko du eta beren asmoa kirol guztietatara hedatuko da, zeren badakite behin euskal selekzio bat sortuta beste kirol guztiak atzetik joango direla.


—ESAITen sorkuntzatik asmo honek hobera egin al du?

—Kontzientzia mailan bai, asko zabaldu da euskal selekzioaren kontua. Gasteizko Parlamentuan ikusi ahal izan genuen partidu politikoek lege berria babestu zutela, baina gehienbat kalean jendeak kontzientzia maila handia hartu du. ESAITek kontzientzia zabaldu du eta alde horretatik erakunde hori sortzea oso ona izan da. Orain geuk ere hasi beharko dugu hortik tiraka, kirolari, federazio zein komunikabideak, ez da soilik kirolarien kontua.

—Beste jokalariek zer diote?


—Kirolarien artean ere badago kontzientzia hori. Gainontzeko jokalariei nire asmoaren berri eman nien baina honekin ez dut inor toki txarrean utzi nahi, orain arte neu ere Espainiako Selekzioarekin aritu naizelako. Baina ez naiz gehiago bertan arituko Euskal selekzioaren alde lan egiten hasiko naizelako. Egoera normala kirolariari non jokatu nahi duen hautatzen uztea izango litzateke. Guk aukera bakarra izan dugu eta kirolean norberarentzat oso garrantzitsua da maila gorenean jokatzea eta hori eredutzat hartu euskal selekzioa eta lizentziak sortzeko. Momentu honetan euskal jokalariak Espainiako selekzioarekin jokatzearen kontra ez nago, bakoitzak ikusi behar du zer egin nahi duen. Gorenera heldu naiz, munduko txapelketa bat jokatu dut eta horrekin beteta nago. Hortik aurrera beste plan bat egiten hasiko naiz.

Ikasten nuena gero herriko jokalariei irakasteko ibili naiz Espainiako selekzioan. Ikasitakoa hemengo jokalariei irakasteko erabili behar dut, herriko errugbi maila igotzeko. Hasieratik argi izan dut jokalariek selekzio horri uko egin beharko lioketela, baina ez badugu ezer egiten Euskal Herrikoa sortzeko eta nazioarteko mailan lehiatzen ez bagara, hemengo kirola trabatuta geldituko da beste herrialdeetakoa gora doan bitartean. Euskal Herriko jendea maila gorenean lehiatzen ez bada, ezingo da gero Euskal Herrian geure lana aplikatu.





Horregatik komenigarria da euskal kirolari onak Espainia nahiz Frantziako selekzioekin maila internazionalean aritzea Euskal Herrikoa ez dugun bitartean. Horrela ikasitakoa herriko jokalariei irakatsi eta tartean herriko selekzioa lortzen ere saiatu. Alde horretatik nik oso argi daukat, ikasitako guztia hemen aplikatu behar dut; bestela eginikoak ez du ezertarako balioko. ■



OPEN

Basagoiti etorbidea, 64 • 48990 • ALGORTA • tel./fax.94 460 8078

• Yoga ikastaroak •
• Aerobic-a goizeko 8-etatik •
• Nagusientzako mantenua •
• Umeentzako aerobic-a •
(18:00-19:00 astearte eta ostegunetan)
• AEROBIC EUSKARAZ (18:00 / 19:00) •

Gimnasioa
ALGORTA
SPORT
GYM

Ordutegia: 8:00 / 22:00
Larunbatak: 10:00 / 14:00

San Martin 33 (metroa, Bidezabal) T: 94 460 14 70

—A.S.G.—

jan edan

aitor elizegi




gaminiz jatetxekoa

Itsas sapoa txingarretan errea

kalabaza purearen gainean, hirugiharrezko karraskaria eta potxak lagun

Txingarretan erre ditugun bi sapo-txirrindola porrusaldaz eta kalabazaz eginiko pure baten gainean jarri. Lagungarri, hirugiharrezko karraskari batzuk prestatu, kanelaz aromatizatuak.
Inguruan, jar bitez potxa-binagreta bat eta ilar-olioa. Azkenik, sapoaren buruaz eginiko pil-pil saltsarekin estali edo inguratu. ■



itsaso arana, jolastoki-koa



Kata

Gran Colegiata Fariña 1995eko erreserba

Fariña SL bodega •
Casaseca de las Chanas (Zamora) •
Jatorrizko izendapena: Toro •



Begiak errez igarriko du ardo honen geriza kolorea, ertz teila oso garbiaz. Sudurrean bainila errearen, tabakoaren eta eguzkipeko mahats helduaren ikutuko aromak. Ahoan oso ekilibratua da, egurrean hazi izanaren eta botilan zahartu izanaren zaporeekin; mahats onduak nabarmentzen dira. Oso egokia saltsadun okelak laguntzeko. ■

Ardoaren dekantazioa

Ardoaren dekantazioa beharrezko teknika zen antzinako ardoetan, zeukaten elaborazio teknikengatik. Gaur egun ardo zaharretarako erabiltzen da.
Dekantazioa ardo garbia eta zikina banatzea da. Helburua: suspentsioan dauden partikulek eragiten duten efektu negatiboa ekiditea da; era berean, ekidin nahi da partikula hauek ahoan igartzearen desplazerra. Dekantazioa egiteko, ardoa oso astiro botilatik "decanter"era argi puntu baten gainetik pasatzen da, horrela lehen zikintasunak ikusiko ditugu. Dekantazioaren beste onura bat zera da, ardoak arnasa hartzen duela eta asfixia usainak galdu. Baina kontuz, bortizki eginez gero, eragin txarra izan dezake.
Hortaz, orokorrean esan daiteke:
—Hondarrak (posoak) dituzten ardoak baino ez dira dekantatu behar.
—Azken bolada honetan, gazteegiak diren ardoak dekantatzea gomendatzen da, duten indarraren apur bat gal dezaten.
—Gehiegi aireztatu ez dadin, azken unean dekantatu behar da ardoa.

ENGLISH SPECIAL PRICES
a native tutor
conversation all topics:
social, business, extensive vocabulary...
a qualified and experienced tutor
tuition for all levels
(grammar, writing...)
interested, call Marcus: 94 460 64 56



Duela urtebete hartu zuen Ziortza Ardeo eta Aitor Alvarez bikoteak Gardoki jatetxearen lema

gardoki

ARGAZKIA: M. M. / TESTUA: J. A

non jan

Etxean baino hobeto

Gardokin daude bazkari atsegina egiteko osagai guztiak

Jatetxe honetara hurbiltzen denak, bazkaldu edota afaldu aurretik, sorpresa atsegin batekin egingo du topo: inguruko bista paregabea. Izan ere, jatetxea kokatua dagoen tontor txiki horretatik, itsasoa, ezkerraldea, inguruko mendiak eta baserriak ikusten dira. Bista ederrak, urrun egoteak, distantziak, patxada, lasaitasuna eragiten diote hara gosea asetzera joan denari, nahitaezkoa benetan janaz eta edanaz gozatzeko. Hortaz, lehenengo platera doanekoa eta gozo-gozoa.

Bigarren sorpresa karta zabaltzean hartuko du bisitariak: euskaraz ere badago. Honezkero ez gintuzke harritu behar baina, tamalez, oraindik gertatzen zaigu. Naturaltasun osoz jarri duela dio Ziortzak, bere bizimoduaren islada baino ez dela. Hala ere, beste batzuentzat eredugarria da.

Joseba da lapiko, zartagin eta tramankulo horien guztien artean gero kartan agertzen diren miriariak egiten ibiltzen dena. Eta kartan, hain zuzen ere, bere sukaldaritza inspiratzen duen filosofia erraz igartzen da: betiko euskal sukaldaritza, hau da, tradizionala, baina ikutu berritzaileekin. Irakurleak zertaz ari garen jakin dezan hona hemen afari posible bat Gardokin: hasteko, eta eskertzekoa da, aperitibo moduan txorizoa eta txakolina (Bizkaikoa, jakina) ematen dute aukeratutakoa heldu bitartean denbora eman dezagun; ondoren, Gardoki entsalada edota antxoa ondo prestatuak (dena jatetxean bertan egiten da); jarraitzeko, arraina gustukoa duenak, makailoa lau saltsatan eskatu behar du (pil-pil, bizkaitarra, piperrak eta berdea), okela nahiago duenak ostera, txuleta; postreen gainean denak bertan egiten direla esatearekin nahikoa da. Zein da hau guztiaren posible egiten duen sekretua? Josebak ez dauka zalantzarik: produktuaren kalitatea, *"kalitaterik ezean nekez egin daiteke ganorazko platerik"*. Ezin dugu aipatu barik utzi ardoen karta luzea eta oso zaindua. Derrigorrezko Errioxaz gain, Ribera del Duero, Priorato, Somontano, eta beste hainbat jatorrizko ardoekin busti daiteke afaria edota bazkaria.

Eta, azkenik, zerbitzua: atsegina eta adeitsua, berdin aldatzen zaizkio mantela, plateak edota kubiertoak menua zein karta jaten duenari. Etxean sentitzen da norbera. Ez dakizula nora eroan lagun kutun hori afaltzera? Ba, orain bai. ■

Gardoki, Mendieta kalea, 47 Sopela
Telf. erreserbak: 94 676 07 61
Karta: 4.500 pta. / Menua: 1.400 pta.
Astelehenetan atsedena hartzen dute, astean zehar gauez itxita.

BARBIRULAU 5 BOST
ALGORTA

ENEKO
BAR ametsa 8

AJURIA
TABERNA
Andrés Cortina 2, bis
T: 4911447
ALGORTA

Zure erruz
Publizitatea galtzeko
Hemen
491 13 37
23 31 194

Algortako Bertsolari Eskola

Bertsoak Idoiari

Fredi Paia

Ez dakit non zauden baina
idatzi nahi nizuke
nire eskuek saminez
dardaraz dihardute
heriotzak hartu zaitu
negar malkoen truke
inpotentzia biburtu
zait barreneko sute
bizitzaren justizia
dudan jarri nahi nuke
galdetu gabe eman ta
eramaten digute.

Ezagutu ginenetik
bada urte andana
umetan ikastolatik
hasi zen harremana
gaztetan gozatu dugu
militantziaren zama
utopia errealitate
bihurtzearen xarma
zu honelakoa zara
bakarra ta bakana
beti ematen duzuna
barruan duzun dana.

Telefonoz egunero
nahi nizuke hots egin
heriotzaren hesia
hitzarekin desegin
bizitzaren ordenean
iraultza bat eragin
baina muga ezin da hautsi
gure samina-samin
nahiz gaurtik aurrera ez den
ezer izango berdin
beti biziko zara zu
maite zaitugunokin.

Oroitzapenek burura
gauza asko dakarte
baina orain aurrerantza
begiratu nahi nuke
hemen jarraituko dugu
guztiok jo ta ke
batzuk heltzen dira eta
beste batzuk zoazte
gaur agur esaten dizut
bertso hauek bitarte
beste nonbait, beste nozbait
elkar ikusi arte.

Idoia gaztea azaroaren 5ean hil zen

"Lasaiago bixi gintzen ordun"

Oraingo honetan Urdulizen egon gara zapatu arrastegi batean, Laubideta ingerun bizi dan Mari Tere Garitaonandia Gorordo andra jatorragaz. Egia esan, ez da erraza bertoko euskeraz hain ondo eta hain jario handiz zein erraztasunez berba egiten deun euskaldunik topatea, berba aberastasun handiz eta erderara joteko beharrik arean be ez dekona.

Testua: Andoni Llosa / Argazkia: Mikel M.

—Zu bertoko zara, ezta?
—Bai, neu hemen jaioko naz, horko ondoko etxen jaiota nago.
—Auzo honetan, ezta? Ala ez dozue "auzo" esaten zuok?
*—Bai ba, "auzo" esaten du guk. Kasu haterako, gure baserri **biñe** izan da, eta albokoi esaten geuntzen "bestaldekok". "Auzoko" guk esaten du **asao** dagozan lagun edo etxen ganen, horrek direz auzokok eta etxe ondokok, ba, "bestaldekok".*
—Zuon denporan, Mari Tere, auzokok egiten zenduen "auzolan" edo "auzobeharra" edo dana dalakoa? Alkarregaz bidek garbitu eta...
*—Hori lehen bai, hau bide egin baino **lelau** gure baserrire, auzoko danok batzen ziren eta bidetxu kompondu, edo itturri garbittu, horrek beharrak bai. Ostantzen solotan bakotzak berek. Nork bere lurrak dekoz, halan da. Lehen Urdulizen egon ziren baso komunalak eta, nire amak eta aittek ezetu eurezan, baina gero **Ayuntaminttuk-edo, erosi gure ixeuneri saldu i eutzesan** horrek lurrak. Eta gaur bakotxa berenak direz.*
—Halan ta duzti be, pentsaten dot hemen ingerun, baserrietan eta, lehen jente gehiago egongo zala orain baino...
—Bueno. Gu ixen gintzesan sei neba-arreba, baina bixi ixen gintzesan gero hiru. Bata abade jon zan, eta neba-arreba bi baserrien bakarrik lotu gintzesan. Gero nire nebe jon zan kanpora fabrikera beharren. Auzoko gehienak kanpora jon ziren, fabriketara eta etxen jeneralen bat baino ez zan lotzen. Gero bestek arratsaldean fabrikatik etorten zirenen lagundu egiten euren etxeko beharratan. Gu geu, ni gaztetan, etxekoaz baino ez gintzen bixi.
—Etxekoaz baino ez? Ganaduk-eta esan gure dozu?
*—Solok eta ganaduk. Aiteri, **kasurako**, angulak koistea asko gustaten jakon eta anguletxu batzuk koisten **baeuzen**, danok pozik. Gero be arrautzetxu batzuk... beti etxekoaz. Erlek bere euki genduzen guk, erlauntzek. Ezti egiteko... ezti bakarrik ez, pika bere egiten euskuen. Akordaten naz baten halantxe erle batek ezpainen pika eta egon nintzen zortzi egun baino gehiago begirik bere zabaldu ezinik. Arpegi dana puztute, txarri baten modun ezpainak, belarrik gogortute, itzela. Askotan pika doskue ezta? Baina ak, nik ez dakit zer beneno edo zer euki eun... itzela. Hainbet erlauntze eukiten genduzen guk, igual dozena erdi bat bai. Etxerako ezti egiten gendun guk eta gero be **argixeri** egiteko.*
—Eskolara-ta, nora jon zintzen?
*—Hona, Elortzara, Laubidetan. Orain frontoie dekona, frontoie dekon taberne? Hor etxen goien egonda nago ni eskolan.Hortxe dagon hori beste eskola **beluagokoa** da. Nire alabak, kasu beterako, horra jon direz. Geu bestera jon gintzen, esan dotsutelez. Buruan dekot eskolatik urten ostean kanikatara olgaten gendula umeok, kromotan, iturrik, tabak, ta soka-jantzan neskak. Gero a, "erren-arrena" esaten geuntzen guk beste bateri, danok **ostu-ostuke** eta bat lotzen zan danok topaten. Gero honeri olgetari "kuike" esaten eutzen. Kisketen be olgaten gendun, erderaz "al trukumé"-edo esaten dakona, hanka baten ganen ibilten gintzelez "kisketen" esaten geuntzen olgetari.*
—Ni holango olgetan ibili naz inoz, baino gaurko gaztek ez dakie zer dan bere...
—Bai, lastime da, ezta? Denpora gitxin sano kanbia dire honek gauzak. Nik pentsaten dot ehun urtetan baino gehiago kanbia dala hamar urtetan, ordenadorek eta makinak eta horrek... huf! Lastime da, eta nik ez dot pentsaten ona danik bere, e? Telebisiño dala, ta bideo ta makinak eta, egun guztian etxe barruan. Hori, osasunarentzako be ez lei ona ixen, nik pentsaten dot behintzet.
—Mari Tere, gaia aldatuz, entzun dot hemetik Urduluzetik bertatik basurderik ibilten dala noz edo noz, badakizu ezer? Pentse lei ezinezkoa dala.
—Nire gazte denporan horretatik basotatik behiek jagoten nagola ez dot inoz ikusi basurderik, e! Baina lehengo aldin egon gintzen asteburun neu jaioko baserrin, hortxe, eta hori esan euden, bai. Igerten dala basurde handi eta umakaz dagola, oinetzak ikusten dira eta. Hortxe mendin paraje egon behar deure, bason. Hor pinu batzuk eta lehen sagardik-eta egon ziren baina orain sasi asko, eta hor egongo dire basurdek gordeta. Ezkurrak jango dittuez, aretxak be badagoz ta. Luki bai ikusi dot inoz gure aitak hilte. Erbik be, erbik bixirik ikusi dotaz atxine etxe ingerun. Orain ez dot pentsaten egongo danik. Lehen asko ikusten zan, gure bestaldekok hilten eurezan erbik, kasik domekaro ekarten euren erbiren bat, bai. Aitteri be kasan asko gustaten jakon, baina erbitara baino oilogorratan joten zan, oilogorratan. Hemen berton ibilten ziren, joten ziren batzutan Margaltzara edo Butroi atzeko horra menditera, paraje ibilten ziren. Asao joten zirenen Lemoizera-edo, ez besterik. Hemen Urdulizen afizino handi dago kasan, asko dagoz.
—Esan dostezu lehen laster txarriboda egin behar duzula. Zelangoak dira txarriboda beharrak?
*—Bai, nik hilen hamazazpin hilgo dot txarri. Lehenengo hasten zara honek piperrak danak apartaten, txorixotarako. Gero, txarri hilko dan bezperan kinpulak, kinpulak txikertu buzkentzak egiteko. Txarri hilten danen, beran odolaz eta kinpulaz eta porruaz eta arrozaz egiten duz buzkentzak. Urdei, kasurako, oraingo txarrik gitxiago egiten deure lehengok baino, ez deure eukiten lehengo beste urdei. Ez dakit zergatik ixengo dan, guk txarrik lehengo erara antzen hasitzen duz, ez dakit zergatik dan. Ondo gobernaten duz, baina hori urdei guk eukiten gendun urte guztirako eta taloaz jaten gendun sarritan armosurako, gozo! Orain talo jaten be ahaztute gagoz, holantxe, ba danok batzen garenen edo txarri hil ta osten danok gagozenen, orduntxe jaten du talo inoz. Ostantzen, hain prisaz bixi gara orain, eta egun guztin goixen beharren, arrastegin beharren ta **karra** batera ta karra bestera. Lehen, jentek egingo eun behar gehiago baina oraingo prisaz ez zan bixiten. Gorputzerako behar gogorrago baina orain baino lasaiago bixi gintzen ordun.* ■


Mari Tere

Berbak

- **Biñe:** birena
- **Asao:** urrun
- **Lelau:** lehenago
- **Erosi gure ixeuneri saldu i eutzesan:** erosi nahi izan zuenari saldu egin zizkion
- **Kasurako:** esate baterako
- **Baeuzen:** bazituen
- **Argixeri:** argizari
- **Beluagokoa:** beranduagokoa
- **Ostu-ostuke:** ezkutaketan jolastu
- **Karra:** korrika*dira:*



DOVER IDIOMAS
• IKASTARO TRINKOAK
• UDA ETA NEGUA
• GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
• UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK
Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA
460 00 38
460 63 41
Ingelesa
Frantsesa
Alemaniera

Errotalde
ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZ!!
T: 460 38 90
Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

SAN IGNACIO Autoeskola
Baimenak:
LCC - A1 - A2 - B1 - B2 - C1
Telletxe 7 T: 460 27 99 ALGORTA
Urkiola 4 T: 430 06 05 ALGORTA
Laubide 3 T: 676 48 39 SOPELA

I
Iñaki Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte plaza 3 T: 4302345
Algorta

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Maitasun arloan pertsona maitatuarekiko sentimendu kontrajarriak izango dituzu. Baliteke berak gauza bera sentitzea eta zu ohartu ez. Berba egitea mesedegarria da.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Urduri eta narritagarri sentituko zara eta lo egitea kostatuko zaizu. Oso umore txarrez zaude; zergatik izango ote da? Hartu denbora; zeure buruarekin sarriagotan egon beharko zenuke.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Lan kontuetan zure kreatibitatea askatuko duzu, baina baliteke zeure inguruan ulertua ez izatea. Izan ezazu konfiantza zeure buruarengan!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zure lan esparrura pertsona berri bat hurbilduko da. Ahal duzun neurrian pertsona horri lagundu beharko zenioke. Etorkizunean mesedegarri gerta dakizuke.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Asteko lehenengo egunetan ez zara zeure momentu fisiko onenean egongo. Atsedena hartzea ez denbora galtzea lagun; zeure gorputzak eskertuko dizu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Erabateko lasaitasuna izango duzu aste honetan. Fisikoki ederto. Bazen ordua, ezta? Hala ere, erne ibili, edozein unetan berriro huts egin dezakezu eta.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Bizkarreko arazoren bat sentituko duzu egunotan. Aurreztutako diruak erraz ihes egingo dizu; beraz, modu egokian gastatu daukazun apurra.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Diruarekin zerikusia duenak atzerapenak izango ditu, batez ere zerbait zor badizute. Lasai egon, nahiz eta lan kontuak aldapaz gora jarriko zaizkizun, bada gauza garrantzitsuagorik.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Jaten duzunarekin kontuz ibili. Nagiak atera eta naturan murgildu zaitez; ematen duena baino errazagoa da. Egiguzu kasu, hobeto sentituko zara eta, gainera, ez zaizu damutuko.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Oporrak behar dituzu, laguntxo; gizakia zara eta ez makina. Aholku bat eman nahi nizuke: bikote lagunarekin irekiago egon beharko zenuke. Entzuteak ez dio inori kalterik egiten.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Koipearekin arazoak dituzu. Orain zeure burua zaintzen ez baduzu kolesterolaren kontua behin baino gehiagotan entzun beharko duzu etorkizunean.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Apurka-apurka baikorrago eta indartsuago sentituko zara, arrazoia zu zeu zara. Etorkizunari beste ikuspuntu batetik begiratuko diozu eta. Bazen garaia.



HALLOWEEN GAUA



ROBERTO MOSO ZARAMAKOA

"Hertzainak taldea izan ez balitz gu txarragoak izango ginen, seguru"

Hamaika urteko ibilbide luzearen ondoren, 1995ean betirako agur esan zuen Zaramak Santurtziko Plazan eskaini zuen kontzertuan. Batez ere, Iparraldeko zaleen eskerrona jaso zuten, Hegoaldean ez horrenbeste. Robertok ahotsa jartzen zuen Ezkerraldeko talde honetan. Gaur egun, Radio Euskadin esatari lanetan dabil. Sopelan bizi da.

—Zazpi disko guztira, eta gero liburu bat. Egin dezagun errepaso azkar bat. *Indarrez* izan zen lehena...

—Irudi *"garajero"* eta zikina eman genuen baina hori ez zen gure asmoa. Hasi ginenean garaje soinuaz asko hitz egiten zen, eta bai, nik uste dut bageneukala halako soinu bat. Hala ere, diskoa eta zuzenekoaren artean alde handia zegoen. Nahiko istriputsua izan zen, alde batetik ginena baino aberatsago geratu zelako eta, bestetik, benetan ginena baino zikinago.

—Bigarrena, *Gaua apurtu arte*...

—Landetan (Frantziako hegoaldean) grabatu genuen, Leon herrian. Leku polita, baketsua zen, oso ñoñoa ere bai. Denborapasarako aukera asko genituen han: untzian ibiltzeko, zaldiz... Hortaz denbora asko galdu genuen. *Hertzainak*, euren lehenengo diskoarekin, oso ospetsu egin ziren. Niretzat LP hori historikoa da eta gainera asko gustatzen zitzaigun. Disko hura guk egin behar izan genuen, baina egin ez genuen diskoa zela pentsatzen genuen. Baina gauza bat garbi dago, *Hertzainak* taldea izan ez balitz gu txarragoak izango ginen, seguru.

Hirugarrena, *Dena ongi dabil*, nire ustez onena izan zen, goitik behera. Denbora berezia izan zen, zortzi urtez neskalagun bat izan nuen eta gero etena etorri zen. Sasoi hartan libreago nintzen eta hori LPan igartzen da. Beste abentura batzuk kontatzen nituen, aberatsagoa izan zen diskoa. Bazegoen *rollo* politikoa, soziala, baina kontu pertsonalak ere bai. Jean Phocasek grabatu zigun eta gugandik onena ateratzea lortu zuen.

—Eta gero *Bostak bat*.

—*Bostak bat*, gutxien gustatzen zaidana da. Orain dela gutxi sorpresa bat emateko edo, taberna batean jarri zidaten eta egia esan, ez zitzaidan batere gustatu. Kontua da, denok ez daukagula kontatzeko gauza askorik. Jendeak bazekien zer pentsatzen genuen gai askotaz: maitasunaz, abertzaletasunaz... Disko tematikoa egitea erabaki genuen, abestien bitartez istorio bat kontatzea eta azkenean, patata bat atera zitzaigun. Gero *Sexkalestrik* etorri zen. Gehiago gustatu zitzaidan eta nolabait erreakzioa izan zen: zer, santuak gara ala? Mundu utopiko batean bizi al gara? Zerbait errealistagoa egin nahi izan genuen. *Sexkalestrik* zer da ba? Kanpaia jotzea, gazteek egindako ekintzarik ugariena. Gehien praktikatzen den sexualitatea autosexualitatea da eta oso gutxitan hitz egiten da horri buruz. *Iñaki* kanta ere agertu zen eta haren gatibu izan ginen.

Binilo bala egin genuen ondoren, nire ustez heavy-egia, punteo gehiegirekin. Taldean dinamika logiko bat gertatu zen: denbora gehien zuenak, langabezian zegoelako edota beste edozergatik, ordu gehiago sartzen zituen lokalean eta bazeukan halako legimitate handiago bat bere gauzak eta ikutuak kantetan sartzeko. Eta, hori, heavya atera zen.

AHVkoekin eta Antonio Curielekin gehiegi ezagutu ez zen disko labur bat ere egin genuen, oso kanta politak zituen.

—Gaur egun zer entzuten Roberto Mosok?

—Egia esan musika batez ere kotxean entzuten dut. Alaitz eta Maider entzuten etorri naiz; aitortzen dut. Manu Chao-rekin engantxuta nago, zenbat eta gehiago entzun, gehiago gustatzen zait, oso oso ona da. Maixa eta Itziar ere aipatuko ditut, *Berri Txarrak* taldearen azken diskoa ere ondo dago. Kanpoko taldeen artean *Red Hot Chilli Peppers* asko gustatzen zait nahiz eta *Californication*, azken diskoarekin zapuztuta geratu. Single zaharrak ere sarritan entzuten ditut.

—*Zarama taldea* aipatzen badut, zer datorkizu gogora?

—Gogora, orokorrean, "rollo ona" datorkit, beharbada izan dudan esperientziarik aberatsena izan da taldea. *Zarama*-ri esker ezagutu dut jende pilo bat, *Zarama*-ri esker sartu nintzen irratian, ezagunagoa nintzen. Radio Euskadin hasi nintzenean ez nintzen oposizioak irabazita sartu, hori gero gertatu zen. Sartu nintzen zuzendari berria, garai hartan 27 urteko mutil batek, gaur egun Telecinco-ko zuzendaria denak, Mikel Lejarzak, deituta. *Zarama*-ri esker Iparraldea ezagutu nuen, niretzat zeozer mitologikoa zena, haren berri Benitoren kanten bitartez baizik ez nuen. Beraz, benetako Iparraldea ezagutu nuen. *Zarama*-ri esker ezagutu ditut, adibidez, ez dakit zein herri txikitako gazte bizienak, gehien mugitzen direnak... Horrelako gauzak oso politak izaten dira.

—Aspaldi liburu bat ere idatzi zenuen: *Cuentos y susedidos bastos*. Haren hitzaurrean, zuk *Pre-fascio* deitu zenion, hainbat galdera egiten zenizkion zure buruari. Urte batzuk pasatu dira eta gogoraraziko dizkizut, ados?

—Ados (barre artean).

—Giza-injustiziaren zer erru-portzentaia dagokizu zuri?

—Egia esan ez dakit, baina niri seguru asko portzentaia txiki bat, nahiko txikia esango nuke.

—Non demontre daude betiko ezkerra eta eskuina?

—Labur-labur: puta ideiarik ez. Hala ere, ez du ematen kapitalismoaren alternatiba handirik dagoenik.

—Etikoa al da norbera aberastea?

—Ze galdera onak egiten nizkion nire buruari (barreak)! Aberastea, antza, denok nahi dugun gauza da. Hortxe ditugu horrenbeste loteria, kiniela... Inoiz denok jokatu dugu. Aberastea etikoa ez bada, ba orduan ez gara oso etikoak.

—Izan daiteke inor euskalduna eta ia ez dadila igarri?

—Adibide bat: bilbotarra zara, ez dakizu euskara, *Rolling Stones* da zure talde gustukoena, informatika gustatzen zaizu Bartzelonako lagun bati bezala; Golf GTI bat daukazu, berak bezala; telebistan *Caiga quien caiga* da zure saio kutunena, berarentzat ere bai... Ba bai, izan zaitezke euskalduna eta inork igarri ez.

—Larrugorritan euskaldun eta errumaniar bat zein den zein igarriko zenuke?

—(Barreak) Argi eta garbi, ez.

—Osasuntsua al da pornografia?

—Galdera horrekin nabil azken boladan (barreak). Horretan eta beste gauza askotan nahiko eskizofrenikoa naiz. Pornografiaren atzean mugitzen den guztia, azpiko mundu ilun hori, seguru asko ez da oso osasuntsua izango. Ni ez naiz hortik abiatzen. Baina bizitza honetan ez dago horrenbeste plazer iturririk, ezta? Ondo dago erabiltzea. Aizu! Elkarrizketa hau niretzat psikoanalistarengana joatea bezala izaten ari da eta, gainera, debalde! Ez nau inork niri buruz hitz egiten horrenbeste denbora aguantatzen! ■ **J. A.**



Indarrez, 1984



Gaua apurtu arte, 1984


A. Curiel-ekin, 1985



Dena ongi dabil, 1987



Bostak bat, 1989





Sexkalextrik, 1991




Iñaki, 1991


• Binilo bala, diskoa falta da








Aulkiarekin jolastea proposatu genion Robertori



atzera begira



"ACADEMIA DON PABLO"KO HAURRAK, 1940/42

Ikastetxe haren egiazko izena "Academia de 2ª Enseñanza de Algorta" zen baina jende guztiak "Academia de Don Pablo" deitzen zion. Argazkia Algortako tren geltoki zaharraren parean hartua dago, Telletxe kalean zegoen Café Manuel Ruesgasen terrazan. Garai hartan ez zen gaur egungo trafikorik izaten eta Telletxe kalean bertan olgetan ematen zituzten umeek jolastorduak.

AZALTZEN DIRENAK

ZUTUNIK

Pedro Atejada Argaluza
Santiago Martikorena
Angel M. Basañez
Juan Antonio Bengoetxea
José Fortuny Marco
Antonio Rotger Marco
José Martín Bello
Deogracias Intxausti

ERDIKO LERROA

José Manuel Agirre
Julián Iturriaga Libano
José Antonio Imaz
Ramón Gómez
José A. Sopelana Erentxu
Emilio Azarola Sangroniz
Juan M. Unzaga Ainz
Román Laraudogoitia
José M. Terreria Onaindi

ESERITA

Francisco J. Urretxua Libano
José Antonio Campos
Javier Ribero Bernaola
Juan M. Sarria Landarte
Jesús Aristegi Marco
Pedro M. Orbe Balenziaga
Joaquín Balparda Urritikoetxea
Ignacio Bengoetxea Azumendi
Santiago González Balenziaga



MVNGIA
OKINDEGIA

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

GURE MENDEA

XX. MENDEKO EUSKAL HERRIA
LIBURU+CD-ROM ETA MAHAI JOKOAN

FAMILIA ETA LAGUNARTERAKO EUSKAL "TRIVIAL"A

SEI GAIEI DAGOZKIEN KOLOREAK ESKURATU BEHAR DITUZU!

- 1.500 galdera-erantzun
- 14 urtetik gorakoentzat
- 2-8 jokalari
- Geografia, kirola, historia, artea, hizkuntza...

ERNE GALDERA GAIZTOEKIN, ZIRIEKIN ETA TRANPEKIN!



Inbertsio eder bat!

XX.MENDEKO EUSKAL KULTURA
Liburu+CD-ROMean

LIBURUA
- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia erreferentziala
- Ehun argazki.

CD-ROMa
- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia osatua
- Hemeroteka: iritzi artikuluak, elkarrizketak, publizitate-iragarkiak
- Pertsonaia esanguratsuak
- Argazki ugari

ARGIA ren eskutik

ARGIAn salgai • Tel.: 943 37 15 45 • denda@argia.com

BIHARFONDOS

Zapping egitea inbertsio fondoetara ere heldu da



BIHARFONDOS, INBERTSIO FONDOEI ATXIKIRIKO BIZITZA ASEGURUA DA ETA ONDOKOA AHALBIDETZEN DU:

- Zure inbertsioaren norakoa hautatzea, zuretzako aukeratutako hainbat fondoren artean.
- Zuk nahi duzunean, fondo batetik bestera aldatzea.
- Zuk behar duzunean, zati bat edo guztia berreskuratzea, penalizaziorik gabe.
- Unean-unean aukerarik onenari buruzko informazioa emango dizun profesionalen taldea edukitzea aholkulari.
- Eta zerga abantailarik handienekin.

Biharfondos, Biharko Vida y Pensiones S.A.ren bizitza asegurua da.

Aseguru hartzaileak bere kontratuaren inbertsioaren arriskua bere gain hartzen du. Asegurugilea da Inbertsio Fondoen partaidetzen titularra. BILBAO BIZKAIA KUTXAk, Aseguru Agentziako Sozietate gisa jarduten du, Biharko Vida y Pensiones, Cía. de Seguros y Reaseguros S.A.rekin hitzartutako agentzi kontratuaren arabera, eta erakunde honetako agente-erroldan, 1 zenbakiarekin agertzen da.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEHIAGO ESKAINTZEN DUENIK

www.bbk.es

Biharko
Vida y Pensiones
Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.